

# SUIMONO (TXIRLA KONTSOMEA)

## OSAGAIAK

**(4 pertsonarentzat)**
**500 gr txirla**
**8 otarrainxka egosi**
**4 barrengorri lau zatitan moztuta**
**3 baratxuri fresko**
**10 gr martorri**
**8 errefautxo, erditik moztuta**
**100 ml ur**

## ELABORAZIOA

Barrengorriak lau zatitan moztuko ditugu, baratxuri freskoak zerrendetan eta errefautxoak erditik.

Txirlak ontzi batean sartu, eta ur korrontearekin garbituko ditugu. Ura duen kazola batean sartuko ditugu gainerako osagaiekin; kazola estali eta su txikian jarriko dugu.

Txirlak ireki direnean, kontsomea prest izango dugu. Salda iragazi, eta katilu batean zerbitzatuko dugu.

| PREZIOA | DENBORA | ZAILTASUNA | OSASUNGARRIA |
|---|---|---|---|
| ERTAINA | 15' | 3/10 | 9/10 |